AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1685

249/2013 EBAZPENA, martxoaren 4koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Jose Manuel Ladrón de Guevara Portugal jauna Donostia Unibertsitate Ospitaleko zuzendari medikoaren kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 23ko 1132/2007 Ebazpenaren bitartez, Jose Manuel Ladrón de Guevara Portugal jauna Donostia Unibertsitate Ospitaleko zuzendari mediko izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jose Manuel Ladrón de Guevara Portugal jauna Donostia Unibertsitate Ospitaleko zuzendari medikoaren kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2013ko martxoaren 10etik aurrera izango du eragina.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Donostia Unibertsitate Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.